

URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA



Etengabe egoera berrira egokituz, zaharren egoitza

HERNANI
ZAHARREN EGOITZA

2-3



Krisialdian babesgabe, etxeko langileak

URUMEA
ETXEKO LANGILEAK

8-9



Jokozaletasuna, alkohola eta drogak, puntu gorriak nerabeen arriskueta

HERRIA
GAIA 10-11

Iranera bueltatu behar, birusak birus

Atezainen entrenatzailea da Asier Rey Santin hernaniarra, Irango Foolhad Khuzestan taldean. Eta egunotan Hernanin bada ere, hara bueltatu beharko du, taldeak agindutakoan, Iranen Koronabirus kasu asko egon arren. Kutsatzeko beldur da, bidaian bereziki: «odisea bat izango da hori».

14-15



Maskarilla egile haundiena laster, Hernaniko Bexen Medical enpresa

HERNANI
OIARSO BEXEN MEDICAL

7

'Maritxu Balkoi' eguna bihar, Lizeaga auzoko Madalena plazan

HERNANI
LIZEAGA AUZO

5

Aste Santuko mezak bihartik, Youtubeko kanalean

ASTIGARRAGA-HERNANI
ELIZA

16



Etxean maskarillak egin nahi?

Oihalezko maskarillak nola egin erakutsi digute Nerea Peñak eta Aloña Berazak, pausoz pauso. Mari Karmen Azpiroz goizuetarra ere ari da etxean egiten, herrikideei emateko.

Maskarillak urri diren honetan, eta espezializatutakoak osasungintzan erabili ditzaten, etxean oihalezko maskarillak nola egin azaldu dute ama-alaba hernaniarrek; etxetik kanpo lan egin behar duten horientzat, erabilgarriak. Bideoa ere, ikusgai: www.kronika.eus.

URUMEA
MASKARILLAK

6

TALLERES JUANTXO

Juan Ignacio Rodríguez

- ▼ Diagnosi unibertsala
- ▼ Neumatikoetan aukera zabala
- ▼ Aire egokituaren karga eta konponketa
- ▼ Suspentsioak, Balaztak
- ▼ Olio aldaketak. Mekanika orokorra

ESKAINZA NEGU ETA UDAKO NEUMATIKOETAN

Astelehenetik ostiralera:
09:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00
Larunbatetan: 10:00 - 13:00

Andre kalea, 60 (Atzietas) Hernani Telf: 943 25 66 08 tallerjuantxo@gmail.com

«Egoera berrira egokitu eta neurri zorrotzak hartu ditugu, egoiliarren ongizateari begira»

Covid-19ak eragindako alarma egoera honetan, hainbat neurri hartu dira Hernaniko zaharren egoitzan, eta bertako prebentzio neurrien berri eman nahi izan diote, Kronikari.

HERNANI ZAHARREN EGOITZA

Nola eragin dizue Covid-19aren egoerak?

Adinekoei zuzendutako zerbitzu batzuk itxi behar izan dira: Jangela soziala, eguneko zentroa, eguneko arreta... Beste zentrotan (egoitza, apartamentuak...) neurri prebentiboak hartu behar izan dira. Itxi diren zerbitzuetako erabiltzaileekin harreman zuzenean gaude eta sortu zaizkien behar berriei erantzuten ari gara, otordua etxera eraman ez edo etxeko laguntza zerbitzua handituz.

Udalak honen aurrean, prebentzio neurri gisa egoitzak ixtea agindu du. Zer iritzi duzue? Horrelako neurriak hartzea eskatzen zuen egoerak?

Udala gara gu, eta Udalak erabaki duela esaten denean, guk erabaki dugula esaten da. Teknikariok eta politikariok elkarrekin hartutako erabakia izan

«Sektorizatu egin ditugu zonak: kutsatutakoak, sintomak dituztenak, kontaktua izan dutenak, sintomarik ez dutenak eta kontakturik ez dutenak»



Koronabirusak eragindako egoera honen aurrean, zerbitzu gehienak itxi dituzte. Hernaniko zaharren egoitzan, bertako zonak sektorizatu dituzte.

da. Beharrezkoa da ahalik eta zerbitzu gehienak itxita egotea. Neurri egokiena da etxetik atera gabe egotea.

Zer moduz daramakizue berrogeialdia? Zaharren egoitzako egunerokotasuna kontatzerik bai?

Egoera berrira egokitu behar izan dugu, eta oso azkar gainera. Lan gogorra ari da izaten, baina denak prebentzioari begira eta egoiliarren ongizateari begira beharrezkoak direnak.

Gaur egun, egoitza sektorizatu dago. Zorionez, momentuz ez dugu kasu positiborik.

Sektorizatu ditugu zonak: kutsatutakoak, sintomak dituztenak, kontaktua izan dutenak, eta sintomarik ez dutenak eta kontakturik izan ez dutenak. Langileek ere neurri bereziak dituzte. Egoiliarren ere beren neurriak dituzte, baina monitorea denbora librea lan egiten

«Udala gara gu, eta Udalak erabaki duela esaten denean, guk erabaki dugula esan nahi du. Beharrezkoa da ahalik eta zerbitzu gehien itxita egotea, eta neurri egokiena da etxetik atera gabe egotea»

dute, egoera normalizatuz eta lasaitasun bat transmitituz. Bisitarik ezin dituzte jaso baina bideo deiak egiten dituzte.

Zeintzuk izan dira, egoitzako langileok hartu behar dituzuen neurri horiek? Gogorra egiten da neurri hauek hartzea?

Temperatura kontrolatu behar da txanda aldaketetan. Maskarilla erabili behar dute arnas klinika duten egoiliar guztiek.

Lan tresnen eta tresna pertsonalen higiena zorrotzko da, 70 graduko alkoholarekin garbituz. Eskuen higienarako neurri zorrotzak bete behar dira. Bai egoiliarren eta besteen artean, bai eremu komun gainazal ukitu aurretik eta ondoren, eremu horien artean daude kontsultategiak, bilera gelak, sendaketa gelak, erabiltako ekipo informatiboak... Segurtasun neurri buruzko prestakuntza eta prebentziozko alderdiekin lotutako teknika zehatzak (eskuen higiena...), Osakidetzako esteketan daude. Sukarra duten profesionalak ez dira beren lanpostura joango, eta telefonoz erreferentziako medikuarekin jarriko dira harremanetan. Sektorizazioaren arabera langileak banatuta dau-

«Familiak urduri daude eta normala da. Gure lana da beraien informatzea eta lasaitzea. Gainera, teknologia berriekin, hasi gara bideodeiak egiten, familiarak ikusteko aukera izan dezaten»

de, eta aldagelak ere bai. Plantilla errefortzatu da: erizain bat, 18 klinika laguntzaile eta 4 garbitzaile gehiago lanean ari dira egoitzan.

Adinekoak nola bizi dute hau guztia? Haiek ere neurriak hartu beharko dituzte ezta? Zeintzuk?

Kronika

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 08 99
688 660 714

Lege gordailua:
SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lan-taldea:
A. Arbelaitz, O. Egaña,
I. Goñi, L. Goñi, B. Los
Arcos, A. Moreno, J. Osa,
M. Ramirez de Alda eta
J. Zubitur.

Argitaratzailea:

DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Hernaniko Udala



Astigarragako Udala



Auzo Udala



GOIZUETAKO UDALA



ARANOKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKALARIAK

TOKIKOM

2015 **Bikain**





Zaharren egoitzako aktibitateak mantenduz, normaltasuna lortzen saiatzen dira bertako langileak.

Logela aldaketak nozitu dituzte bakoitzaren osasun egoera kontutan hartuta. Familiaren bisitak ezin dituzte jaso. Bideo-deiekin edo telefonoz hitz egiten dute. Kanpotik datozen jardue-ra guztiak bertan behera gelditu dira. Ahal den neurrian, zentroan moduluka egingo da lan, eta erabiltzaileak ez dira beste modulutara pasako.

Espazio komunetan segurtasun distantzia gordeko da, eta gune horiek behar bezala aireztatuko dira. Arnasketa sintomak zorrotzak dituztenean zentroan indarrean dagoen protokoloa aplikatuko da, baita dagokion arreta zuhurtasuneko arauak ere, gune komunak saihestuz eta erabiltzaileen ego-naldia beren logelara mugatuz.

«Zaila da bisitarik ez jaso, eta familiarrik ez ikustea, bai egoiliarrentzat baita familiarrentzat ere. Horregatik jartzen gara harremanetan egunero, egoiliarren familiarekin»

Gune komunak erabiliz gero, maskarilla jarriko dute eta segurtasun tarte gordeko dute.

Bizi dute, denok bezala, aldi baterako dela eta ezarritako neurriak onartu behar dituztela. Goizero biltzen da profesional desberdinek osatutako krisi mahaia, eta egunero neurriak adosten dira bertan.

Egoera larririk pasa duzue? Heldu askok ulertuko dute egoera, beste batzuek agian ez... Kontatu pixka bat, nola hartu duten Koronabirusaren kontua.

Egoera konplikatu da. Normaltasun egoera ez den honetan, saiatzen gara normaltasuna mantentzen, egoiliarrei begira. Helburua beraiek lasai eta gustura egotea da. Egoera azaldu zaie, eta ulertu dute. Egoera larririk ez dugu momentuz; kasu batean azterketa egin da, eta negatibo eman du.

Bisitak ez dira onartzen. Zer moduz daramakite hau bertako helduek? Eta zuek, bertako langileak zaitenok? Zaila da bisitarik ez jaso, eta familiarrik ezin ikustea, bai egoiliarrentzat baita familiarrentzat ere. Horregatik, egunero egoilar bakoitzaren familiarekin harre-

«Koronabirusa hor dago, eta ahal dugun guztia egin behar dugu guregana ez iristeko, eta horretan gabilta buru belarri. Hau guztia amaitzean, ikusi beharko da zer eragin izan duen»

manetan jartzen ari gara egoeraren berri emateko. Familiak urduri daude eta normala da; gure lana da beraiek informatu eta lasaitzea. Orokorrean ulertzen dute egoera. Teknologia berriak aprobetxatuz ere hasi gara bideodeiak egiten, familiarrik ikusteko aukera izan dezaten.

Helduek tristura uneak izango dituzte... Nola animatzen dituzue?

Gorabeherak izaten dituzte. Gu beraiekin pertsonalki egonez, lasaituz, argi esanez zein egoeretan gauden, eta psikologoaren laguntza behar izanez gero bertan dago laguntzeko ere. Horrela lasaiago egotea lortzen dugu.

Langileok nola laguntzen diozue elkarri? Babesa izango duzue zuen artean, ezta? Nolakoa da?

Langileek lankidetasun handia dute. Egoera hau hasi zenetik eta eguneko zentroa itxi zenetik, bertako langileak egoitzan lanean jartzeko erabakia hartu zuen Udalak, eta horrek gogorra izaten ari den lan hau arintzen laguntzen du.

Zer pentsatzen duzue datorrela hemendik aurrera? Koronabirusak gure bizitzetan eragin gehiagorik izango duela uste duzue?

Koronabirusa birusa hor dago eta ahal dugun guztia egin behar dugu guregana ez iristeko, eta horretan ari gara. Argi dago orain eragina izaten ari dela. Hau guztia bukatzen denean, ikusi beharko da zer eragin izan duen. Ahalik eta azkarren pasatzea espero dugu, eta bizitza arruntera bueltatu ahal izatea.

Zaharren egoitzetan dauden helduei baimena emango zaie haien familien etxetara joateko, Gipuzkoan behintzat. Hernanin ere hala egingo da? Foru Aldundia ari da gai hau lantzen, momentuz zirriborroan dago. Prozedura izango da etxera

joan daitezke egoiliarren krisialdi hau pasatu arte. Egoitzan plaza gordeko zaie eta ez dute ordaindu behar. Hala ere, medikuak baloratuko du egoiliarra etxean zaintzeko moduan dagoen. Etxera joan dena ezin da itzuli krisi hau pasatu arte, konpromezu hori hartu behar du. Etxean mendekotasun prestazio ekonomikoa emango zaie familia zaintzailea izateagatik, baita behar dituzten laguntza teknikoak ere: ohe artikulatua, grua, koltxoia eskara ez sortzekoa...

Azken egunetan, hainbat kasu berri egon dira zaharren egoitzetan. Neurri gehiago hartu dira horregatik?

Neurri prebentiboak Foru Aldundiak ezarri dizkie egoitza guztiei. Adostu dugu suhiltzaileekin astearteetan 15:30etan egingo dutela espazio komunetan desinfekzioa (terraza, pasilloa, egongela, jangela). Ordu pare bat izango da, eta siestako ordua denez, logelan egongo dira egoiliarren. Orokorrean ondo gaude, behar diren neurriak hartuz. Egoiliarrek ulertzen dute, eta kolaboratu ere bai. Aktibitateak mantenduz normaltasuna lortzen saiatzen gara. Egunero elkartzen gara laneko ekipoa eta egiten dugu balorazioa. **K**

Alarma egoeran ere, tokiko produktu freskoak kontsumitzeko kanpaina hasi dute instituzioek

Baserritar ekoizleen lan eta bizimoduan zailtasunak sortu dira. Krisialdiari erantzuteko eta herriko baserritarrei laguntzeko aukera badago Astigarragan eta Hernanin. Aldundiak eta Jaurlaritzak merkaturatzeko zerbitzua sortu dute.

URUMEA KORONABIRUSA

Osasun alarma egoera indarrean dagoenetik, tokiko baserritar eta ekoizleek elikagaiak saltzeko eta herritarrek horiek eskuratzeko zailtasunak dituzte. Baserritarren eta ekoizleen eguneroko salmentak aldatu eta kasu askotan gutxitu egin dira; jatetxeetara, eskoletara... elikagaiak saltzen zituztenek, ezin izango dituzte alarma egoerak irauten duen bitartean salmentak horiek burutu.

Azoketan euren produktuak salgai jartzen zituzten askok ere ezin izango dituzte bide horretatik saldu. Beraz, egoera honek asko eragiten die produktuen salmentan. Hori dela eta, kasu gehienetan, salmenta bideak aldatzera behartuta egon dira

baserritar eta ekoizleak, etxeko zerbitzua eskainiz edota internet bidezko salmentak egin, esaterako.

Herriko baserritar eta ekoizleak Astigarragan

Astigarragan ere euren produktuak saltzeko bide berriak bilatzen ari dira baserritar eta ekoizleak. Horren adibide da Taula Baserriko Elena. Udalarari jakinarazi dionez, herritarrek zuzenean dei diezaioke, behar dutena eskuratu ahal izateko.

Hau da Elenarekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 617 086 127.

Saltokiak eta ekoizle txikiak harremanetan jarri ditu udalak Hernanin

Hernaniko Udaleko Merkataritza Arloa, saltoki eta ekoizle txikiak harremanetan dago, neurriak adosteko helburuz. Hernaniko lehen sektoreko ekoizle txikiak eta irekita dauden elikagai denda horiek harremanetan jartzeko lanetan dago Udala.

Horrela, Hernaniko ekoizle txikien zerrenda osatu du Udalak, eta elikagaiak saltzen dituzten dendei helaraziko die produktu horiek haien saltokietan saltzeko aukera eskaintzeko. Horrela, ekoizle txiki horien produktuek salmentarako modua izango lukete, eta saltokiek, bere aldetik, tokiko produktua sustatuko lukete.

Lehen sektoreko ekoizle txikiak honakoak dira: Karabeleko (barazki ekologikoak), Tellerizahar (gazta eta esnea), Balantxa baserria (barazkiak) eta OnEin (mermeladak eta barazki kontserbak).

Lehen sektoreko ekoizle txikiak honakoak dira: Karabeleko (barazki ekologikoak), Tellerizahar (gazta eta esnea), Balantxa baserria (barazkiak) eta OnEin (mermeladak eta barazki kontserbak).

Biltzeko eta merkaturatzeko zerbitzua baserritarrentzat, Foru Aldundiak

Eusko Jaurlaritzak eta Gipuz-



Astigarragako Taula baserriko produktuak eskatu daitezke.

koako Foru Aldundiak ere jarri dute martxan, azoketara produktuak zuzentzen dituzten baserritarrentzako produktuen bilketa eta merkaturatze zerbitzua. Aldundiko eta Jaurlaritzako ordezkariak aurkeztu zuten ekimena, aurreko astean.

Azoketan produktuak saltzen zituzten baserritarrei, produktuak merkaturatzen laguntzea da ekimenaren helburu nagusia.

Baldintzak, bilduko diren produktuak, beharrezko logistikaren ezaugarriak, prezioak eta

abarren inguruko xehetasunak izateko, baserritarrek 943 69 30 74 telefonora deitu ahal izango dute, astelehenetik ostiralera 08:00etatik 14:30etara, edota 688 643 670 telefonora WhatsApep idatzi (Erreferentzia: Barazki Bilketa). Bilketa antolaketa konplexua izanik, zerbitzuak egun batzuk eman beharko ditu logistika gai guztiak lotuta edukitzeko, baina bitartean horren inguruko informazioa baserritarrentzat eskuragarri egongo da, aipatutako harremanetarako kanaletan. **K**

Pertsona baten bila, postari lana egiteko

Posta zerbitzurik gabe dago Goizueta, eta alarma egoerak irauten duen bitartean bete beharko da lanpostua.

GOIZUETA UDALA

Joan den martxoaren 23tik posta zerbitzurik gabe daude Goizuetan, Koronabirusa dela eta, adinagatik arrisku egoeran egon litezkeen langileak zerbitzuko kanpo uztea baimendu duelako Correosek.

Lanpostu honetarako ordezkari langilerik ez dagoenez zerrendetan, Goizuetan postari gisa lan egiteko interesaturik egonez gero, 948 20 72 09 telefono zenbakira deitzeko eskatu du Correosek (15:00ak arte; Kristinarenagatik galdetu).

Gaur denon omenez «txalo zaparrada ahaztezin», iluntzeko zortzietan

Itxialdian Goizuetan ekimen asko sortu dira eta bideo berri bat ere egin dute. Askok dira etxeetatik denei animoak bidaltzen ari direnak ere; izan ere,

azken hiru aste hauetan goizuetar asko eta asko dira 20:00etan balkoietara ateratzen direnak: txaloka, musika jarrita, kantari eta instrumentuak eskutan.

Gaur, zerbait haundia egin nahi dute, eta horregatik, sare sozialetan hurrengo ekimena jarri dute abian: «bidal diezaiegun inoiz ahaztuko ez dugun txalo zaparrada ospitaleetan lanean ari direnei; gure herriko xaharrei eta pazientzia haundiz etxean sartuta dauden umeei: gure etxeetan janaria eta botikak falta ez daitezen lan eta lan ari diren merkatariei; etxean gelditu nahi, baina halabeharrez lanera joan behar dutenei; birusa harrapatu dutenei; eta etxean geratzeagatik harrapatuko ez dutenei».

Gaur 20:00etan aterako dira Goizuetako balkoi eta leihoetara: «sentitu dezagun elkarrekin gaudela. Elkar zaintzen badugu, hau dena askoz errazagoa izango da. Iluntzera arte beraz! Eta airean kamera hegalariren bat ikusten baduzue, agurtu!», adierazi dute ekimen hau martxan jarri duten goizuetarrek. Gero, irudiak ikusiko dira. **K**

ADITUAK ESANA

Canexionen martxan jarraitzen dugu, egoerara egokituta



HERNANI BABESTUTAKO EDUKIA

Egun eta egoera berezia bizi-tzen ari bagara ere, Canexionen, zuen beharretara egokituta, martxan jarraitzen dugu.

Elikadura, higiene, ongizate, edo egunerokoari eusteko behar duzuen guztia daukagu. Gainera, whatsapp bidez ere egin dezakezue eskaera, 685 049 188 telefonoan, edo info@canexion.es helbidera idatzita; eta zuen etxera bidaliko dugu behar duzuen hori. Nolanahi ere, produktu horietara

ko edozein hartzera irtetea guztiz baimendua dago, baina banaka.

Albaitaritza klinikak ere martxan jarraitzen du, baina protokolo hau jarraituz:

- Deitu eta zure kasua azaldu behar diguzu, ahal dela etxean bertan zaudela lagunduko zaitugu.

- Pertsona bakar batek lagunduko diezaiozala maskotari.

- Ohiko azterketa bat besterik ez baduzue behar, kasua aztertuko dugu, seguruagoa izango baita alarma egoera hori amaitu arte itxarotea.

Gogoratu denok solidarioak izan behar dugula, eta zuen txakurra kalera ateratzen duzunean, saia zaitezte etxetik 250 metro baino gehiago ez

Alberto Fernandez



urruntzen, eta ez luzatu irteera egin beharrekoak egiteko behar baino gehiago.

Zuen txakurra edo katua entretenituta mantentzeko, ia energiarik erre ezin duenez, behar bakoitzari egokitutako irtenbide desberdinak ditugu; ez izan zalantzarik horretaz galdetzeko eta lagunduko zaituztegu.

Edozein arrazoiengatik Canexionera etorri behar baduzu, gogoratu egoera honek irauten duen bitartean honako ordutegian gaudela: astelehenetik ostiralera, 10:00-13:30 eta 16:30-19:00; eta baita larunbatetan ere, 10:00-13:30; eta atean aparkaleku pribatua duzue, dena errazago egiteko.



Maskotentzako kalitatezko denda eta aholkularitza

- ✦ Albaitaritza
- ✦ Txakur heziketa
- ✦ Ileapaindegia
- ✦ Denda

Akarregi poligonoa, 10. Hernani

943 04 87 83

«Birusa garaitzeko konpromezua eskertzen diegu hernaniarrei»

Ricardo Crespo Hernaniko PSE-EEko bozeramaileak dio eredugarria dela herritar gehienak COVID-19aren aurrean duten jarrera.

HERNANI PSE-EE

Ricardo Crespo udal talde sozialistako bozeramailearen esanetan, «eredugarria» da hernaniar gehienak Covid-19ko osasun larrialdia dela-eta konfinamendua jarraitzen ari diren modua. Cresporen hitzetan, «Jarrera horrekin normaltasuna lehenago berreskuratuko da».

Aldi berean, talde sozialistak eskerrak eman nahi izan dizkie birusaren aurkako zuzeneko borrokan parte hartu duten sektore guztiei, «osasun-langileei, garbiketako langileei, segurtasun-endarrei, elikadura- eta hornikuntza-endarrei, lagun egiteari eta abarri, baina bereziki Hernanin lan egiten duten zerbitzuei, lanean jarraitzen duten udaleko langileei, bide-garbiketako zerbitzuei, desinfekzio-lanak egin dituzte-

nei, hondakinen bilketari, udaltzaingoari, zaharren egoitzari... baita jardunean jarraitzen duten langileei eta bolondresei ere bai».

Era berean PSE-EEk dio eskertzekoa dela, «balkoietatik egiten ari diren omenaldiak egunak joan eta egunak etorri; izan ere, horien erakusle nagusiak dira segurtasun-endarrak eta osasun-langileak. Horiak gabe ezinezkoa izango litzateke birusa garaitzea».

«Eskertza Udal zuzendaritza politikoari»

Bozeramaile sozialistak, era berean, eskerrak eman nahi izan dizkie udal zuzendaritza politikoari, gainerako talde politikoei hartutako neurrien berri eman izanagatik. «Alderdi Sozialistatik laguntza emango diogu egoera zail honetan, eta beha-

rezko erabakiak hartzen ari dira».

Horrela, alkatearekin izan dituzten bileretan udal langileen egoeraz arduratu dira, duten prebentzio-ekipamenduaz galdetuta, adinekoen egoeraz zaharren egoitzan eta haien etxeetan, eta desinfekzioak ere proposatuz prentsa oharrean azaldu dutenez.

«Pandemia amaitzeko babes osoa hartzen diren neurriei»

PSE-EEtik azaltzen dutenez, joan den martxoaren 17an, alarma dekretua eman eta hiru egunera, alkateari proposatu zioten neurri ekonomikoak hartzea garai honetan langileek eta autonomoek jasan zezaketen egoera arintzeko.

Bukatzeko Hernaniko alderdi sozialistak «pandemia amaitzeko hartzen diren neurriei bere babes osoa modu leialean erakusten jarraituko du, egoera honek herritar guztiei eragiten dielako, baldintza partikularra axola gabe». **K**



Xabi Solano eta Jon Garmendia 'Txuria' elkarranean.

Xabi Solano eta Txuria, Hamaika TBan

EREÑOTZU 11TB

MusikaZuzenean saioa egiten du Hamaika Tebistak, eta pasa den astean, Xabi Solano Maiza eta Jon Garmendia 'Txuria' erreportajea argitaratu zuen. Road Movie berezi batean Ereñotzu eta Donibane Lohitzune elkartu dituzte, Xabi Solanoren musika ibilbidea erreparatu eta Txuriaren hitzei erreparatzeko. Saio guztiak www.hamaika.eus webgunean ikusi daitezke, eta YouTubeko kanalean.

Erosketak, telefonoz eta WhatsApp bidez

EREÑOTZU DENDA

Aurreko asteazkenetik erosketa-eskaerak telefono dei bitartez eta WhatsApp bitartez egiteko aukera dago Ereñotzuko dendan. Ohiko ordutegian denda zabalik egongo da erosketa bertan, zuzenean, egiteko. Erosketa-eskaerak egiteko telefono bidez (deiak nahiz WhatsApp bidez) 10:00-13:00 eta 17:00-19:00 bitartean egingo dira 943 33 32 20 eta 635 444 583 telefonoetan. Dendariak eskaera presatutakoan, erosleari abisatuko dio dendatik pasa dadin jaso eta ordainketa gauzatzeko. Dendara gerturatzeko ezintasuna duten auzotarren kasuan erosketak etxera eramateko aukera egongo da.

Odol ematea asteartean, Goiz Eguzkin

HERNANI ODOL EMATEA

Odol emateek aurrera segitzen dute eta odol emaile elkartetik emaileekin harremanetan jarri dira eta koordinatu dituzte estrakzio guztiak, ordua aurretik jarrita. Ez da odol emaile berririk hartuko, ez eta planifikatu gabeko estrakziorik. Odol ematea ez da ambulategian egingo baizik eta Goiz Eguzki jubilatutakoan.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

'Maritxu Balkoi' eguna, bihar Lizeagako Madalena plazatxoan

Dotore jantzita aterako dira eguerdiko, 12:00etan, balkoira eta selfia aterako du bakoitzak. Ondoren bingoa jolastuko dute.

HERNANI LIZEAGA AUZOA

Lizeaga auzoko bizilagunek entretanimendurako bideak bilatu dituzte konfinamenduan. Aurreko igandean irrintzi txapelketa antolatu zuten eta bihar Maritxu Balkoi festa antolatu dute. Arrasateko Maritxu Kajoiri jarraituz Madalena 8 plazatxoko bizilagunak dotore jantzita irtingo dira balkoietara, eguerdiko 12:00etatik.

Dotore jantzita egongo direnez, bakoitzak bere selfia aterako du. Argazki hauek *photo-collage* bat egiteko bilduko dira. Bilduma hau eginda dagoenean parte hartu duen jendeari bidaliko zaio berriz. Selfiak edo argazkiak atera ondoren helbide honetara bidaliko dira: maritxubalkoi@gmail.com.

Behin argazkiak dotore jantzita aterata eta gero bingoan jolastuko dute bizilagunak. Aurre-


tik kartoiak eskatu behar ditu jendeak maritxubalkoi@gmail.com webgunean helbidean. Parte hartu nahi duen guztiari kartoi bat emango zaio (etxe bakoitzeko bi kartoi). Mariak, etxean bingo jokua duenez, bere balkoietatik kantatuko ditu zenbakiak. Bingo kantatzen duenak txalo zaparrada ederra jasoko du. Bingoko kartoiak jasotzeko izena eta bizilekua eman behar dira aipatutako posta elektronikoa.

Eguerdia pasatzeko modu atsegina izango da eta tartean musika ere egongo da Maritxu Balkoi eguna ospatzeko asmatan. **K**

II. URTEURRENA

Mari Jose Peña Arruti

Ez zaitugu inoz ahaztuko,
ez zaitugu inoz galduko,
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.



XABIER, IMANOL ETA ESTEBAN

Hernanin, 2020ko apirilaren 4an



**FUNERARIA
ORBEGOZO
BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20 www.funerariaorbegozo.com

- * Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- * Beilatokiak
- * Errausketak
- * Lekualdatzeak
- * Eskelak, koroak...




HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

Etxean egiteko moduko maskarillak, etxetik kanpo lanean jarraitzen dutenentzat

Oihalezko maskarillak nola egin erakutsi digute Nerea Peña eta Aloña Beraza ama-alabek, pausoz pauso. Osasun zentroetarako ez, baina martxan jarraitzen duten beste lanbideetarako erabilgarriak izan daitezke. Bideo bat ere egin dute, webgunean ikusgai: 'www.kronika.eus'.

URUMEA MASKARILLAK

COVID-19 birusak azaleratu dituen arazoaren artean dago, osasun zerbitzuetako materialaren falta. Koronabirusa hedatzen hasi zenean, asko izan ziren farmazietan maskarillak erosi zituztenak; eta pixkanaka, horiek eta gehiago behar izan dituzte, osasun zentroetan. Gehiago lortzeko lanetan aritu dira asteotan, erakunde ezberdinak.

Baina osasungintzan ez ezik, oraindik martxan diren beste lanbide batzuetan ere behar dituzte maskarillak: elikagai dendetako langileek, banatzaileek, lehenasunezko produktuak egiten dituzten enpresetakoek...

Haienez, erabilgarriak izan daitezke etxean egindako oihalezko maskarillak. Eta horiek nola egin azaldu digute, pausoz pauso, Nerea Peña eta Aloña Beraza ama-alaba hernaniarrek.

Ohar pare bat eman dizkigute, hasteko: «maskarillak egiteko oihalak algodoizkoak badiira, askoz hobeto. Kontuan izan behar da, azalarekin zuzenean kontaktuan egongo direla. Eta maskarilla hauek ez dute balio osasun zentroetarako; beste neurririk ez duten lanbide horietarako mesedegarriak, baina aintzat hartu behar dira autoritateek emandako gomendioak.



Azkeneko pausoetako bat da, tolesdurak egin eta jostea.

Hiru orduz baino gehiagok edukitzea ez da gomendagarria, eta garbitzera bota behar dira hiru orduz baino. Beraz, maskarilla bakarra baino, hainbat egitea komeni da.

Beharrezko materialak, etxean eduki dezakeguna

Behin oharrak emanda, beharrezko materialak zehaztu dizkigute ama-alabek; eta denak dira, etxean eduki ditzakegunak. Hasteko, oinarrizkoa, algodoizko oihala izango da. Horrekin batera, goma elastikoa beharko dugu; edo horrelakorik eduki ezean, zintek edo oinetakoen lokarriek ere balio dute. Beharko ditugu josteko ohiko material eta tresnak ere: hariak, orratza, guraizeak, eta josteko makina, edukiz gero; bestela, eskuz egin daiteke. Eta azkenik, plantxa ere erabiliko dugu.

13 pauso erraz, egiteko

Eta azkenik, maskarillak egiteko prozesua azaldu digute Nerea Peñak eta Aloña Berazak, 13 pauso errazetan banatuta:

1-Moztu goma zatiak, 18 zentimetrokoak, gutxi gorabehera.

2-Moztu oihal zatia, 39x21 zentimetrokoa.

3-Oihala horizontalean jarri.

4-Oihala horizontalean dugula, markatu arkatz batekin zein den oihalaren erdigunea, marra bertikala eginez.

5-Bi erdietako batean, goiko eta beheko ertzetan, alboko iskinetik neurtu zentimetro bat barrurantz, eta bertan lotu goma bakoitzaren punta bat. Gero, berdin erdiko marratik kanporantz, beste zentimetro bat neurtu eta lotu goma bakoitzaren beste punta. Horrela, geratuko zaigu goma bakoitza lotuta ertz banatan, oihalaren erdi horretan.

6-Oihala tolestu, beste erdia gomen gainera ekarrira. Gomak bi oihal zatien erdian edo barruan geratuko dira horrela.

7-Oihala lauki forman dugula, josi ertz guztiak. Goikoa eta behekoa osorik josiko ditugu, eta horrela, bi gomen puntak oihalera josita geratuko dira. Baina alboko ertzean, 4 zentimetroko zulo txiki bat utziko dugu josi gabe, erdi parean.

8-Josi gabe utzitako zulo txikitik, aterako ditugu barruan geratu diren orratzak.

9-Zulo txiki hori aprobetxatuz, bertatik emango diogu buelta



Maskarilla bat baino gehiago egitea komeni da, hiru orduz baino aldazteko.

oihalari, gomak kanpoan geratu daitezten.

10-Oihalari buelta emanda, plantxarekin lisatuko dugu, maskarillari tolesdurak egin ahal izateko.

11-Oihalari bi tolesdura edo dobladillo egingo dizkiogu, horizontalean, neurri finkorik gabe, eta orratzekin lotu (ikus ezkerreko beheko argazkia; bertikalean dago oihala jarrita, bertan).

12-Tolesdurak lotuta daudela, alboetako bi ertzak josi.

13-Zintzilik geratu zaizkigun

hariak moztu, eta maskarilla prest daukagu.

Jarraibideak marrazkiekin eta bideoa, interneten ikusgai

Maskarilla egiteko pausoak idatziz azaltzea zaila egiten dela eta, lana gehiago erraztu nahi izan digute Nerea Peñak eta Aloña Berazak; eta hori guztia azaltzeko, beste bi material ere eskaini dizkigute.

Batetik, maskarilla egiteko jarraibideak, marrazki batzuekin osatuta eman dizkigute,



Nerea Peña, maskarilletako batekin.

hobeto ulertzeko, zer den pausoz bakoitzean egin beharrekoa, non lotu gomak, nola egin tolesdurak... Eta bestetik, bideoa ere grabatu dute, erakusteko nola egiten diren maskarillak; hori ere, pausoz pauso dago azalduta eta erakutsita.

Marrazkiak zein bideoa, Kronikaren web orrian ikusi daitezke, erreportaje honekin batera: www.kronika.eus. Sartu, ikusi, ikasi, eta ez galdu aukera, zuen maskarilla propioak egiteko, behar dituzenerako. **K**

Maskarillak egin eta herrikideei oparitzen, Mari Karmen Azpiroz

Bilobaren laguntzaz ari da maskarillak egiten, eta behar duenari oparitzen dio.

GOIZUETA MASKARILLAK

Maskarilla falta dagoen honetan, etxean nola egin ikasi duen horietako bat da Mari Karmen Azpiroz goizuetarra ere. Eta denborarik galdu gabe, makina bat maskarilla egiten ari da, bere bilobaren laguntzarekin, etxean. Oihalak, gomak, hariak, josteko makina eta beharrezko tresna guztiak hartu, eta bata bestearen atzetik ari da maskarillak egiten.

Osasungintzan erabiltzeko



Makina bat maskarilla egin ditu Mari Karmen Azpirozek, etxean.

modukoak ez badira ere, hainbatentzat baliagarri izan daitezke maskarilla horiek. Eta horregatik, herritarren artean oparitzen ari da, behar edo

nahi dituenak erabili ditzan.

Eskatzen dituenari, eman egiten dio maskarilla bana, eta beraz, batenbat nahi duenak, bereganajo besterik ez dauka!

«Estatuko maskarilla egile haundiena» laster, Hernaniko Bexen Medical enpresa

Maskarillak egiteko makinak martxan jarri, eta apirilaren bukaeratik aurrera, «hilean 10 milioi maskarilla» egitea aurreikusi du, egoitza Ibarluze poligonoan daukan enpresak. Bere produktuen artean ez daude maskarillak berez, baina egungo egoerari aurre egiteko hasi dira horretan.

HERNANI OIARSO BEXEN MEDICAL

Koronabirusaren bueltan, kasu positibo zein negatiboekin, eta horrelako datuekin batera, osasungintzako produktuen falta da gehien aipatzen den gaitako bat, egun hauetan. Behin erabiltzeko produktuak dira, eskari haundiena dutenak, osasun larrialdi honetan. Eta horretara bideratzen du bere jarduerara, Hernaniko Oiarso Bexen Medical enpresak. Ibarluze poligono-ko egoitzan, ospitaleetan behin erabiltzeko produktuak egiten dituzte. Enpresaren produktuen artean, baina, ez daude maskarillak. Ez luzaroan. Egungo egoerari aurre egiten laguntzeko, maskarillak fabrikatzen hastea aztertu zuten, eta laster jarriko dute produkzioa martxan. Markinan egingo ditu horiek, Mondragon taldeko beste enpresa baten egoitzan, Hernaniko beste produktuak egiteko behar dutelako.

Kopuru haundietan egingo dute, gainera: «hilean 10 milioi maskarilla egitea espero dugu. Beraz, dena ondo joanez gero, izango ginatke Estatuan maskarilla gehien egiten dituen enpresa», Carlos Arsuaga Cortazar gerenteak azaldu duenez.

Medikamentuen Espainiako Agentziak deia, laguntza eske

Martxoaren 13an hasi zen dena, Oiarso Bexen Medical enpresak deia jaso zuenean, Medikamentuen Espainiako Agentziatik, laguntza eske: «gurekin harremanetan jarri ziren, galdetzeko ea posible ote genuen maskarillak, batak eta horrelakoak egitea. Esan genien ez dela guk egiten dugun produktu mota, baina lagundu genezakeela. Ospitaleetarako produktuak egiten daukagun 42 urteko esperientzia jarriko genuen beraien eskura, maskarillak ere erabilera bakkarrerako produktuak direlako; eta guk dauzkagun ambiente kontrolatuko gelak ere baliatuko genituen horretarako», azaldu du Arsuagak.

Baina beste zerbait ere falta zuen Oiarso Bexen Medicaletan, produkzioari ekiteko: maskari-

llak egiteko makina. «Mondragon korporazioko beste enpresa batek, Mondragon Assemblyk, fabrikatzen ditu makinak maskarillak egiteko, Txinan», dio Arsuagak.

Gauzak horrela, Mondragon Assemblyrekin jarri ziren harremanetan, proposamena aurrera eramaten hasteko. «Osasun Ministeriotik adierazi ziguten, oso haundia dela Txinatik ekarri beharreko produktuen kostua, eta estrategikoki, behar dutela produktuak bertan egin ahal izatea. Hori horrela, erabaki genuen Mondragon Assemblyk lau makina egitea: bat Espainiako Defentsa Ministerioarentzat, eta beste hiru guretzat, Oiarso Bexen Medicalentzat».

«Behin hiru makinak instalatuta eta prest daudenean, bere errendimendu osoan lanean edukitzea da asmoa. Horretarako, hiru errelebotara ariko gara lanean, eta 20 lanpostu berri baino gehiago sortuko dira»

Proposamen hori landu, eta martxoaren 21ean bidali zieten eskaintza bi enpresek, Espainiako Gobernuari. Onartu egin zuten eskaintza, eta dagoeneko makinak egiteko lanean ari dira, Txinan.

«Egingo ditugun maskarillak dira kirurgikoak, hiru kapakoak, babes haundiena eskaintzen dutenak»

Hernaniko enpresak azaldu du, osasungintzan erabiltzeko maskarillak izango direla, egingo dituztenak; eta babes haundiena eskainiko dutela: «maskarilla kirurgikoak egingo ditugu, hiru kapakoak, babes haundiena eskaintzen dutenak».

Horiek egiteko lehengaiekin daukate arazoa, orain: «lehengaietako bat oso zaila da aur-



Markinan egingo ditu maskarillak Bexen Medicaletan, Hernaniko egoitzan gainerako materiala egiten jarraitu behar dutelako.

kitzen, une honetan. Errusian badaude hornitzaileak, baina hango autoritateek ez dute aukera ematen esportatzeko, beraiek ere beharko dutela aurreikusita. Turkian eta Txinan ere badaude, baina egungo egoerarekin, eskaeraz gainezka daude», dio Carlos Arsuagak.

Edozein kasutan, espero dute lehengaiak ahalik eta azkarren lortzea, eta makinak ekarri eta prestatu bezain laster, martxan jartzea produkzioa: «espero dugu apirilaren bukaerarako hasi ahal izatea maskarillak egiten, kopuru haundietan. Eta dena ondo badao, hilean 10 milioi egitea aurreikusi dugu, estatuan beste inork baino gehiago». Maskarilla horiek, Espainiako Gobernuarentzat izango dira.

20 lanpostu berri baino gehiago, horretarako

Proiektu honekin, gainera, maskarillak egiteaz aparte, lanpostu berriak ere sortuko ditu Oiarso Bexen Medicaletan. Izan ere, bere asmoa da hiru makinak lanean edukitzea «bere errendimendu guztiarekin». Eta horretarako, hiru errelebotara arituko lirake bertan: «inbertsioa haundia izango da, eta lanpostu berrien sorrera ere bai. Izan ere, makinak instalatu ondoren eta hiru errelebotara aritzeko, 20 lanpostu berri baino gehiago sortuko ditugu bertan».

Osasungintzaren sektorean, fabrikazioa eta aholkularitza Osasungintzaren sektorean espezializatutako enpresa da Bexen Medical, 40 urtetik gorako esperientzia daukana. Behin erabiltzeko material sanitarioaren fabrikazioa da bere jardue-

ra nagusia: EVA poltsak, poltsa fotoprotektiboak, zundak, xiringak, elikadura integralerako poltsak zein hodiak, ginekologiako tresneria, infusio eta transfusioetarako tresnak...

«Maskarillak egiteko hiru lehengaietako bat lortzeko dauzkagu zailtasunak: Errusian badaude hornitzaileak, baina autoritateek ez dute aukera ematen esportatzeko, beraiek ere beharko dutela aurreikusita»

Eta horrez gain, sektorearekin lotutako aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen du, kalitatearen inguruan.

Lagin biologikoak kudeatzeko, aurreneko gordailua Estatuan Baina hirugarren arlo bat ere

lantzen du Bexen Medicaletan, eta horregatik notizia izan zen joan den irailean ere: lagin biologikoak kudeatzeko gordailua jarri zuen martxan bere egoitzan, Estatuan aurrenekoa dena.

Jarduerara aitzindari horrekin, lagin biologikoak baldintza onenetan mantentzeko dagoen «behar gero eta haundiagoari» erantzun nahi izan zion enpresak: «instituzio eta industria haundiek sortzen dituzte lagin horiek, esaterako odol bankuek, biobankuek, botikaren industriak, edota nekazaritzako elikagaien industriak».

Horiei zerbitzua emateko, 8 milioi lagin baino gehiago gordetzeko tokia dauka, eta 88 ultraizozgailu, zero azpitik 80 gradutara mantentzen dutenak; kriogeniazko bi tanke, zero azpitik 196 gradukoak; eta kamara bat, zero azpitik 35 gradutara.

Instalazio berrieekin, Bexen Medicaletan nahi du «integratu lagin biologikoen manipulazioa eta prozesaketa gure enpresa, Estatu Batuetako eta Europako antzeko enpresetan egiten den bezala», Carlos Arsuagak berak nabarmendu zuenez. **K**

KRONIKAK PUBLIZISTA BEHAR DU ORDEZKAPEN BATERAKO

Bidali zure CV-a, apirilaren 14ra arte:

kronika@kronika.eus

Dobera Euskara Elkartea
Larramendi 11 behea
20.120 HERNANI

Kronika



ESKATZEN DA:

/ Euskera ondo menperatzea, hitzez zein idatziz.
/ Lantaldean aritzeko gaitasuna.
/ Iniziatiba eta enpatia.
/ Publizitate edo marketing ikasketak izatea.

ESKAINIKO ZAIO:

/ Kontratu: sei hilabetetarako.
/ Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak.

BALORATUKO DA:

/ Urumea bailara ezagutzea.
/ Doberako bazkide izatea.
/ Tokiko hedabideak ezagutzea.
/ Publizista lanetan esperientzia.
/ Maketatze eta diseinu programen ezagutza.
/ Sare sozialak menperatzea.

Baldintzak betetzen dituztenen artean probak egin ondoren bat aukeratu da.

«Diru-laguntza jasotzeko eskubiderik gabe, alkilerra, janaria... ordaindu behar ditut»

Lanik gabe geratu da, Hernanin bi urte bizitzen ari den emakume nikaraguarra: «orain dela 18 egun lanik gabe geratu nintzen, Gizarte Segurantzari gabe, eta orain gure egoera larria da. Bi alaba dauzkat, diru sarrerarik gabe, eta gastuak berdin mantentzen dira».

URUMEA ETXeko LANGILEAK

Osasun krisi honek Hernanin egoera larriak sortu ditu etxeko langileen artean. Gehienak emakumeak eta etorkinak dira, eta asko lanik gabe geratu dira. Ez hori bakarrik, baizik eta diru-laguntzak jasotzeko eskubiderik gabe daude. Horren erakusgarri da, bere izena argitaratzerik nahi ez duen emakume nikaraguar bat. Nahiago du bere egoera lazarria modu anonimoan eraman.

«Hernanin adineko emakume bat zaintzen nuen orain dela 18 egun arte, baina ez joateko esan zidaten». Orduetik Hernanin bere etxera bueltatu da bere bi alabekin. «17 eta 6 urte dituzte», baina ez du inongo diru sarrerarik. «Alabek galdetzen didate zer egingo dugun, eta ez dakit erantzuten. Nik etxeko alkilerra ordaindu behar dut, janaria erosi, alaben eskola ordaindu, argia... Zaharrena ikasketak online ari da egiten, eta interneta ere ordaindu behar da, bestela ezin

ditu ikasketak jarraitu... Hau da bizitzen ari garen egoera, etxean sartuta».

«Adineko bat zaintzen nuen, eta kutsatzeko arriskua ikusi zuen bere familiak»

Lanera ez joateko esan zioten, zaintzen zuen pertsonaren familiakoek. «Adinekoa da, eta kutsatzeko arriskua dagoela argudiatu zuten. Nik bi alaba ditut, eta hau hasi zenean eskolara joaten ziren; eta arrisku hori zegoela esanda etxean geratzeko esan zidaten. Babesteko hartu duten neurria da».

Hala ere, krisia amaitzen denean berriz ere lan berdinerara itzultzeko itxaropena du. «Nik uste dut, gero bueltatuko naizela lan eta etxe berdinerara».

Hori bai, orain babes gabe aurkitu da, Gizarte Segurantzaren alta emanda ez baitago. «Gizarte Zerbitzuetara deitu nuen, eta oraingoz ez omen dago guretzako laguntzarik. Babesgabe gaude, eta sokaren alderik ahulena gara. Gastuak mantentzen ditu-



Adinekoak zaintzen dituzten gehiengo emakume etorkinak izaten dira.

gu, laguntza eta lanik gabe, sarrerarik gabe».

Bizitzen ari diren etxebizitzako jabea ez da kontaktuan jarri, beraien egoera aztertzeko. «Ez digu deitu eta nik ere ez diot deitu». Maizter batzuei hilabete alkilerra ez ordaintzeko proposamenak egin dizkieten jabeak badaude.

Gutxienez, alaba egunero ikasten ikusteak pozten du. «Goizeko 08:00etatik arratsaldeko 15:00ak arte aritzen da eskolako lanak egiten internet bidez, baina kezka ere sortzen du

internet gabe geratzeak, ezingo dudalako ordaindu. Klase horiek gabe geratu daiteke, horrela gertatuz gero».

«Beste lan bat ezin da bilatu, eta egoera honetan emakume asko gaude»

Hernanin bi urte daramatza bizitzen, eta beti egon da lanean adinekoak zaintzen, nahiz eta ez beti etxe berdinean. «Orain lanean nengoen etxean denbora asko eman dut, baina aurretik ere egon naiz beste etxe batean», azaldu du.

Itxialdiaren gauzarik zailetakoa egiten zaiona, beste lan bat ezin bilatzearena da. «Ezin da etxetik irten eta ezin duzu bilatu, eta aurkitu ere ezingo duzu gauden egoera honetan. Dena dira zailtasunak, eta ni nagoen egoera honetan, batez ere emakume asko eta asko gaude. Jendea ez dakit jakitun den egoera zein larria den etorkinen artean eta etxeko langileen artean. Pertsona baten atzean familiak daude. Paperak ez ditugunok ezin dugu-laguntzarik jaso, eta hor dago arazo larriena». K

«580.000 etxeko langile daude; horietatik ia 200.000 ez daude Gizarte Segurantzaren alta emanda eta ez dute laguntza jasoko»

Gobernuak aldi baterako aparteko diru-laguntza emango du, hilabete baterako kotizazio oinarriaren %70a, lana partzialki edo guztiz galdu eta Gizarte Segurantzaren alta emanda dauden etxeko langileentzat. «Babes gabe geratu dira asko».

URUMEA ETXeko LANGILEAK

Espaniako Gobernuak, etxeko langileen elkarten protesten aurrean eta aldi baterako, aparteko diru-laguntza emango du hilabete baterako, kotizazio-oinarriaren % 70ekoa, lana guztiz edo partzialki galdu eta Gizarte Segurantzaren alta emanda dauden etxeko langileentzat. «Dudarik gabe aurrerapauso garrantzitsua da hori, baina ez da nahikoa, kontraturik gabe langile asko baitaude, eta kopuru osoaren %30 inguru baitira. Eta asko eta askoren kotizazioa oso, oso baxua da», diote SOS Arrazakeriak eta Amher elkarteek.

Espanian 580.000 etxeko langile daude, gehienak emakumezkoak (501.000), eta gainera migratzaileak, etxeko eta zaintzako lanean aritzen direnak. Horietatik 394.000 Gizarte Segurantzaren alta emanda daude, baina ia 200.000 ez, eta beraien egoera oso larria da, ez baitute laguntzarik jasoko.

Etxeko enplegua da benetako diru-sarrerengatik kotizatzen ez duen soldatapeko kolektibo bakarra: enplegatzaileak aukeratzen dituen soldata-tarteengatik kotizatzen dute. Hori dela eta, sindikatuek eta elkarteek ohartarazi dute sorospen hori kalkulatzeko oinarri bat har-

tuko dela, eta oinarri horrek ez duela benetan islatzen zer kobratzen duten emakume langileek; beraz, laguntzak txikiak izango dira.

Langabezia ez dute kobratzen, baina dekretu berriarekin kobratuko dute. Hori bai, Gizarte Segurantzaren altan emanda baldin badaude.

«Hartu beharreko neurriak»

Beraz, ia 200.000 langile inongo sarrerarik gabe geratzeko arriskuan daude, eta asko geratu dira dagoeneko sarrerarik gabe. «Ez dezagun jarraitu sektore honek eskubideen ilaran segi dezan onartzen. Honako neurri

hauek hartzeko garaia da:

1. Etxeko eta zaintzako langileentzako langabezia-prestazioaren aitortpena eta tarteen araberako kotizazio-sistemaren abolizioa. Soldata errealearen araberako kotizazioa.

2. Desestimendua indargabetzea, kaleratze askea saihesteko.

3. Egoera administratibo irregularrean dauden langileak babesteko neurri bereziak.

4. Lan-ikuskapenak areagotzea. Lanaldia eta legez ezarritako atsedendialdiak errespetatzea.

5. Beren familiak gainerako langileen berdintasunean zaintzeko eskubidea baliatzeko bermeak.

6. Sektorea norbera babesteko ekipamenduen horniduran sartzea, kutsaduraren hedapena saihesteko.

7. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean berehala sartzea.

8. Salbuespenezko neurriak gaitzea COVID-19ko krisiak eragindako lan-arloko enplegatzaile aktiboen Gizarte Segurantzako kotizazio-kuotak eteteko, edo konfinamendu-garaian zaintzak indartzeko kontratazio berriak egin behar izan dituzten enplegatzaileen kasuan, kaleratze berriak edo soldata-murrizketak eragiten dituzten gainkostuak saihesteko».



Etkez etxeko zerbitzuko enpresa batean egiten du lan Elisak.

«Testa egin nahi dut, lanean hasi naitekeen jakiteko»

Donostian etkez etxeko zerbitzua eskaintzen duen enpresa batean egiten du lan, Hernanin 11 urte bizitzen daramatzen Elisa bolibiarra.

URUMEA ETXEKO LANGILEAK

Etzeko langileen egoera oso desberdinak dira, bai lan baldintzen aldetik, baita lan egiteko moduagatik eta ematen diren zerbitzuengatik ere. Elisa bolibiarra da, eta hamaika urte daramatza Hernanin bizitzen, Karabel auzoan. Ez du lan egiten etxe batean, etkez etxeko laguntza zerbitzua ematen duen enpresa batean baizik. «Mendekotasuna duten pertsonekin egiten dut lan, Donostiako Udalak ematen duen zerbitzuan. Ordezkapenak egiten ditut beharra duten etxeetan, denboraldi baterako kontratuekin, hamabost egunekoak edo gehienez hilabete batekoak. Martxoaren 20an baja eman zidaten lanetik, kontratua amaitu eta gero. Ordura arte Donostian zerbitzuak eskaintzen egon nintzen babesez gabe».

Martxoaren 20a ostirala zen, eta ia astebate pasa zen alarma egoera dekretatu eta etxean geratzeko hasieran gomendioa eta ondoren konfinamendua jarri zenetik. «Egun guzti horietan maskarillarik gabe eta desinfektanterik gabe aritu nintzen lanean. Mendekotasun asko dutenen etxebizitzan giltzak uztera joan nintzen enpresara, eta bertan esan zidaten katarroa edo mendekotasuna duenak arnas arazoak baldin bazituen bakarrik utzi ziezadaketela. Etxe batetik bestera ibili behar dugu Donostian leku batetik bestera».

Gainera, deigarriak dira enpresan hartu dituzten neurriak, Elisaren hitzetan. «Bulegoetara sartzeko eta koordinatzaile batekin hitz egiteko desinfektatu egin behar nuen, eta gero guk lana egiteko edota kalean ibiltzeko eskularruak besterik ez ditugu».

«Koronabirusarekin gaixotuta gaude etxeko hirurak»

Familia askok zerbitzuak eten dituzte, eta beraiek jarri dira zaintzan. «Ez dute arriskatu nahi. Egun askotan bost edo zazpi pertsonari ematen diot arreta, eta asteburuetan gehiagori. Gainera, koronabirusarekin gaixotuta nago. Martxoaren 20an gaizki sentitu nintzen, eta arazoa da ez didatela probarik egin».

Egun batzuetan oso gaizki pasa du Elisak, eta etxean hiru pertsona bizi dira: bera, semea eta alaba. «Semea ere kutsatu da, nahiz eta orain hobeto dagoen. Orain 18 urteko alaba dago sintomekin, eta nahiko isolatuta dago etxean. Pasa den ostiralean Groseko anbulategian radiografia bat egin zidaten, arnas arazoak nituelako, baina ez dut neumonia. Testik ez zidaten egin, saturatuta daudelako, esan zidatenez».

Elisaren kasuan, gainera, enpresatik berriz deitu diote lanean hasteko, baina ezin du hasi ziurtatu gabe kutsatuta dagoen edo ez, eta positiboa edo negatiboa den. «Oso gaizki egon

naiz, buruko minarekin eta gorputzeko ondoez haundiarekin, eta arnasa hartzeko arazoekin».

Semeak ere lan egiten zuen Anoetako estadioko garbiketara lanetan, baina futbol partiduak etenda, ez dago lanik. «Niretzako arazoa da noiz hasiko naizen lanean, eta horregatik nahi dut testa ahalik eta azkarren egin».

«Ordezkapenak egiten ditut, eta martxoaren 20an kontratua amaitu zitzaidan. Langileak behar dira, baina ezin dut lanean hasi, jakin gabe Koronabirusa dudana ala ez»

Honela jakingo dut beste hamalau egun egon behar dudana lanik egin gabe edo ez. Zerbitzu hauetan lanean ari garenei hasieratik egin behar zizkiguten test hauek. Ez dut ulertzen. Nire egoera berdinean asko daude».

Orain lana badago etkez etxeko zerbitzuetan, «lankide batzuek baja hartu dutelako, zerbitzuaren erabiltzaileen baten positiboa eman duelako. Jendea behar da lanerako».

Gizarte Segurantzaren altan dago emanda, baina kontratuak motzak dira, eta ez du laguntzatar jo nahi. «Nik nahi dudana da lana egin. Beharrak ditugu etxean. Nire egoera berdinean etzeko langile asko daude. Ekonomikoki arazo oso larriak sortu dizkugu honek». K

«Ziurtagiria egin didate lanerako»

Nahiz eta hiru orduz irregularki lanean aritu Donostian, eskertzen du «lanean jarraitu ahal izatea, ziurtagiria egin eta gero», Hernanin bizi den emakume peruarra.

URUMEA ETXEKO LANGILEAK

Egoera guztiak ez dira berdinak, eta esperientzia positiboa izan duenik ere bada. Hori da 35 urteko emakume peruar baten egoera. Bera Hernanin bizi da, orain dela urte eta hiru hilabete. Nahiago du bere izenik ez eman, baina bai bere egoeraren berri, 35 urte dituen langileak. Donostian aritzen da lanean, eta nahiz eta Koronabirusaren krisian egon, lanean jarraitzen duen etzeko langilea da.

«Niretzako egoera ez da txarra izaten ari, lan aldetik. Hau dena hasi aurretik, sei ordura nengoen lanean, baina arratsaldeko hiru orduak uztear nengoen, ikasten hasteko. Behin konfinamendua hasita, arratsaldeko orduak utzi ditut, baina goizean nago lanean hiru ordura».

Eta hiru ordu horiek egiteko erraztasun asko jarri dizkio, zaintzen ari den adinekoaren familiak. «Amona bat zaintzen dut Donostian, 95 urtekoa, eta bere familiari esan nion lanera joateko arazoak izan nitzakeela polizia kontrolak daudelako eta lanera joateko ziurtagiria eskatzen ari direlako. Oztopoak jarri beharrean erraztasunak eman dizkirate, eta ez larritzeko, beraiek ziurtagiri bat egingo zutela esan zidaten. Nik ez dut paperik, eta hori horrela izanda ziurtagiria egitea niretzako eskertzekoa da».

Kontuan hartu behar da, kasu hauetako askotan familiak lanera ez bueltatzeko esan diela etzeko-langileei, beraien egoera irregularra ez azalertzeko, baina hau ez da izan kasua. Duen arazorik haundiena autobusen ordutegiarena da. «Ni oraingo polizia ez nau inongo kontrolatan geratu, baina auto-

busen ordutegiaren bai izan ditud arazoak. Murriztu egin dira, eta orain ordubetik ordubetera daude, 15 minuturo egon beharrean».

Zaintzen ari den amonak 95 urte izanik, babestu egiten da, kutsatzeko aukerak murrizteko. «Esku-larruak eta maskarilla eman dizkirate amonaren senitartekoek. Hona etorri naizetik beti beraiekin egon naiz lanean. Orain arte gustora nago».

«Beste lan eskaintza batzuk izan ditut, baina lan horietan ikastaro soziosanitarioa izatea eskatzen didate», eta horregatik hasi da ikastaro horretan arratsaldean. Hori bai, paperak ez izateak diru-laguntzetarako atea ixten dio. «Irregular nagoenez, ezin dut, eta lanera ezin banuen joan hori zen nire kezka».

Laneko hiru ordu horiek oso ongi etortzen zaizkio, ahizpa lanik gabe geratu baita. «Berarekin bizi naiz, eta hostalaritzan aritzen zen lanean kamarera, baina itxi egin dute dena eta oraingoz lanik gabe geratu da. Etxean laguntzeko, nahiz eta gutxi izan, ongi etortzen da sarrera hori».

Ezagutzen ditu beste etxek langile batzuk, adinekoa kutsatzeko beldurrez ari direnak lanean. «Kanpoan egiten dute lan, eta mugitu beharra dute. Horietako asko lanik gabe geratu dira eta berriz deituko dituztela esan diete. Egoera oso zaila da».

Amherrek laguntza eskaintzen du, 671 116 414 eta 667 710 928 telefonoetan

Amherretik laguntza eskaintzen ari dira, gaizki pasatzen ari diren guztiei, Koronabirusaren ondorioz. «Azken bi asteetan elkarlaguntzarekin, janaria eta beste behar batzuk lortu ditugu behar dutenen eskaerari esker. Orain nola zaudeten jakin nahi dugu, eta alarma egoera nola kalteztzen ari den Hernanin. Horregatik idatzi ezazue edo audioa bidali, 671 116 414 edota 667 710 928 telefono zenbakietara, zuen egoera azalduz». Lanaz, etxebizitzaz, seme-alabez, biolentziaz, laguntza psikologikoaz, atzerri-tartasunaz, itzulketaz... hitz egin dezakete. K

«Lan irregularra ez azalertzeko lanera ez bueltatzeko esan diete etzeko langile askori»

«Soziosanitario ikastaroa egiten ari naiz, beste lanetan eskatzen didatelako»

Jokozaletasuna, alkohola eta drogak, puntu gorriak nerabeen arrisku joeretan

Hernaniko nerabeen arrisku faktoreak azaleratu zituen martxoan, Etorkintza Elkargoaren ikerketa batek; eta bi arrisku multzo nagusiei buruz aritu da Kronika, bi aditurekin.

HERNANI NERABEAK

Jokozaletasuna batetik, eta alkohola eta drogak bestetik, dira Hernaniko nerabeek dituzten arrisku nagusietako bi. Hala azaleratu du Etorkintza Elkargoak, herriko 12-17 urte bitarteko gazteen arrisku jarreraren inguruan ikerketa egin ondoren. Joan den urtean zehar egin zuten ikerketa, Hernaniko Udalak eskatuta; eta martxoan eman dituzte aditzera emaitzak.

Bost arlo nagusi aztertu zituzten ikerketan: aisialdi ohi-turak; substantzien kontsumoa; internet, sare sozialak eta bideojokoak; ausazko jokoak edo apustuak; eta harreman interpersonalak. Horretarako, Hernaniko ikastetxeetako 432 nerabe erantzun zuten inkesta; eta hiru eztabaida saio ere antolatu zituzten, 19 neraberekin.

Ikerketako datuetatik, zenbait ondorio nagusi eman zituen aditzera Etorkintzak. Esaterako, adingabeek «eskuragarritasuna eta erraztasuna» dutela «substantzia ezberdinak kontsumitzeko, alkohola adibidez; eta apustuan aritzeko». Horregatik dio, «eskaintzaren kontrolean»

lanean jarraitu behar dela, «aktuzio-protokoloak zehaztuz, indarrean dagoen lege-araudia betearazten dela ziurtatuz, eta herrian ekintza ezberdinak antolatzen direnean, inplikaturako sail, erakunde eta talde guztien artean koordinazioa eta koherentzia bermatuz». Hori lortzeko, «administrazioaren eta herritarren benetako inplikazioa» beharrezkoa dela uste du.

Substantzia batzuen kontsumoa, normalizatuta

Ikerketak gaineratzen du, gizar-tean badagoela «kontsumo batzuen normalizazioa. Batez ere kannabisarena aipatzen da, baina alkoholarena ere oso hedatuta dago, eta gazteek alkohola kontsumitzeko dituzten eredu batzuek kezka eragiten dute». Zentzu horretan, Etorkintzak dio normalizazio hori dela «substantzia horien arrisku pertzepzio baxuaren ondorio», eta egokia litzatekeela «gizarte orokorrean eta familia bereziki», arlo horretan informatzea eta sentsibilitzatzea.

Ausazko jokoei dagokienez, ikerketako datuek diote nerabeen %28ak egin duela noizbait

apusturik. Kirol apustuaren aritu dira bereziki: %24ak egin du horrelako apusturik, azkeneko urtean; %10ak, bost aldiz baino gehiago. Edozein kasutan, sexuaren arabera, oso nabarmenak dira aldeak: mutilen %42,4ak egin du apusturik noizbait, eta nesketan, %14ak soilik. Alde hori, gainera, nabarmenagoa da adinean aurrera egin ahala, 14 urtetik aurrera.

Substantzien kontsumoari dagokionez, berriz, makina bat datu eman ditu aditzera ikerketak. Alkoholaren inguruan, dio %71k edan duela alkohola noizbait, eta horien artean, gehien-goak 12 eta 14 urte bitartean edan zuen aurrenekoz (mutilen %66,41 eta nesken %83,46).

Inoiz mozkortu ote diren ere galdetu zieten nerabe guztiei: %3,53ak dio astero edo ia astero mozkortzen dela, %34,41ak noizbait mozkortu dela, eta %62a inoiz ez. Mozkortu direnen artean, 13-15 adin tartean egin dute gehienek (mutilen %71,4 eta nesken %81,4).

Alkohola lortzeko moduak ere eman ditu aditzera ikerketak: %29,2ak zuzenean erosten du, %15ak senideren baten bitartez, eta %34,1ak 18 urtetik gorako beste norbaiten bitartez. Gehienek supermerkatu (%36,9) edo tabernetan (%28,8) erosten dute.

Tabakoari helduta, %68,8ak ez du inoiz erre, eta %22,5ak behin edo bitan bakarrik. Egu-



Mugikorrarekin ere, posible da apustuak egitea, dagoeneko.

nero erretzen dutenak, hala ere, %4,5 dira; eta astero edo ia astero erretzen dutenak beste %4,2. Noizbait erre dutenen artean, mutil gehienek 12-14 urterekin erre zuten aurreneko zigarroa (%66,66), eta neska gehienek 13-15 urterekin (%76,69).

Kannabisaren inguruan ere galdetu zitzaizkien, eta %72,5ak inoiz kontsumitu ez badu ere, azkeneko hilabetean %5,4ak kontsumitu zuen egunero, eta %4,7ak asteburuetan. Kannabisa probatu duten mutil gehienek, 13-15 urte bitartean kontsumitu zuten aurrenekoz (%78,6); eta nesketan, bereziki 14 eta 15

urterekin (%69,6). Kontsumitzen dutenei, nola lortzen duten galdetu zieten, eta %16,8ak zuzenean eskuratzen du, erabilera pertsonaleko laborantzian.

Aipatutako arriskuei buruz gehiago jakiteko, bi aditurekin hitz egin du Kronikak: jokozaletasuna eta nerabeen arteko harremana aztertu du Karmele Gurrutxagak, Jokalari Anonimoen Elkartearen psikologoak; eta alkoholaren eta drogen arriskuei buruz aritu da Lukene Lizaso, AGIPADeko (Drogen Abusuaren Ikerketa eta Prebentzio-rako Gipuzkoako Elkarte) prebentzio teknikaria. **K**

«Apustuak online egiteko erraztasuna askoz ere haundiagoa da, eta gure gazteek inoiz ez bezalako trebezia digitala dute»

Psikologoa da Karmele Gurrutxaga, Hernaniko Jokalari Anonimoak elkartearen. Jokozaletasuna duten gazteekin ere egiten du lan, bertan.

KARMELE GURRUTXAGA JOKALARI ANONIMOAK

Adin guztietako herritarrekin egiten duzue lan, Jokalari Anonimoak elkartearen? Zein da ohiko profila?

Berez, joko-mendekotasunaren bariante ezberdinei lekua egiten zaie. Duela 16 urte Elkartearen hasi nintzenean, perfil ohikoena zen gizonezkoa, 50-54 urte ingurukoa, makina txanpon-jaleetan harrapatua, eta tabernetan aritzen zena. Ordutik nabarmen aldatu da hau guztia;

hein handi batean, adina gero eta gazteagoa da, eta zailtasun handiena: kirol-apustuen zabal-kundea han-hemen eskura dugu, eta online apustuen eskuragarritasunak mendekotasun efektua areagotzen du.

Euren borondatez bada, adin guztietako kideak ongi-etorriak dira Elkartearen; 18-19 urteko kaltetuak baditugu, eta 70 urte ingurukoak ere. Gazteenak, batzuetan gurasoek behartuta agertzen dira, eta gerora, helduagoak diren heinean, betirako gaixotasuna dela ja-

beturik, eramangarri egiteko laguntza beharrean joaten dira askotan.

Hernaniko nerabeen %27,9ak egin du noizbait apusturik, edo aritu da auskazko jokoetan. Datu kezagarria da hori?

Uste dut benetan kezagarria dela, bai. 12 urte ingurukoetan gutxi jokatu izango du agian, baina adinak aurrera egin ahala, gogo edo bulkada indartzen joatea, hori bera, nahiko adierazgarria da; eta hala gertatzen da tamalez. Lehen esan bezala, kirol-apustuak burutzeko gonbidapenak ugariak dira. Adin txikikoak izanik ere, gogo pizteko estrategikoki prestatuta daude. Online burutzeko erraz-

tasuna askoz handiagoa da. Gure gazteek inoiz ez bezalako trebezia digitala dute. Mundu hau arakatzeko hainbat web orrialde, foro eta abar ikusiko bagenitu, dirurik ez dugunean ere, forman mantentzeko, probak egiteko... irabazirik gabeko apustuak egitera animatzen gaituzte; bulkada-zomorroa adi mantentzeko, nolabait.

Honekin batera, apustuak, ustezko kirol jarduera osasuntsuekin eta lehiaren emozioarekin lotzera gonbidatzen dute enpresa-eragileek; lagun-arte-ko pozarekin, diru gutxirekin asko lortu daitekeenaren irudipena sustatu nahi da. Ondorioz, joku mota hori normaltzen da, eta talde-aisialdi jarduera bat

bilakatzen delarik, arriskuen atzematea galtzen goaz; gazteen artean bereziki.

17 urtekoen artean, mutil guztiek onartu dute apusturik egin izana. Zenbaterainoko larria da datua? Eta 12 urterekin dagoeneko %25ak baino gehiagok apusturik egin izana, neska zein mutiletan?

Uste dut benetan larria dela 17 urtekoen kopuru hau; hasiera batean, ezin esan guztiak ludopata bihurtuko direnik, baina interes edo motibazio orokorra egoteak arriskuaren atzematea estaltzen du, esan bezala. Adin horretan dirua mugatuagoa denez, askotan taldekako jokoak burutzen da. Nerabezaroaldian,

«Nerabeen kontsumoak normaltzat ikusten ditugun bitartean, zaila izango da inertzia hau aldatzea»

Prebentzio teknikaria da Lukene Lizaso, AGIPAD elkartean. Nerabeek drogekin duten harremanaren arriskuak azaldu ditu.

LUKENE LIZASO AGIPAD

Hernaniko nerabeen arrisku jarrean azterketak dio, %71k probatu duela alkohola, nahiz eta %53ak behin edo bitan besterik ez duen edan. Zer erakusten dute datu horiek?

Hernaniko nerabeen azterketak adierazi dituen datuak, orokorrean Euskal Autonomia Erki-degoko datuen antzekoak dira, puntu batzuk gora behera.

Alkohola da gure artean droga kontsumituen, eta hori, adin txikikoen artean ere, helduok egiten ditugun kontsumoen islada da. Gainera, ez dugu ahaztu behar Hernaniko herriak berezitasun bat ere baduela: sagardotegi garaian, astebururo dago jaia, eta honek asko errazten du adin txikikoen kontsumoa. Baina ezin diogu horri bakarrik begiratu, gure gizartearen festa eta jai ereduaren drogen kontsumoekin zuzenki erlazionatuta dagoelako.

Alkohola 12-14 urterekin probatu dute gehienek, eta 13-15 urterekin mozortu dira aurrenekoz. Ohiko datuak dira? Alkoholarekin kontsumo hasta-

pena 13,2 urtetan dago finkatuta; DBH2-3ko ikasleez ari gara. Lehen mozkorraldia 14,3 urterekin ematen da EAEn. Beraz, Hernaniko datuak bat datoz inguruko herri eta probintziak.

Hori bai, kontuan hartu beharreko datuak dira; ikustera ohituta gauden datuak izateak, ez dakar garrantzia gutxiago ematea edota ardura kentzea. Arriskutsuak ez diren kontsumoak egiten dituztela iruditzen zaie, gizarteak babesten dituelako. «Mundu guztiak edaten du» bezalako esaldiak entzute-ra ohituta gaude, eta hori horrela den bitartean eta nerabeen kontsumoak normaltzat ikusten ditugun bitartean, zaila izango da inertzia hau aldatzea.

Erraztasunak dauzkate, alkohola kontsumitzeko?

Alkohola lortzeko zailtasun gutxi izaten dituzte; normalean beraiek erosten dute, eta arazoren bat izanez gero, 18 urte baino gehiago dituztenek erosteko inongo arazorik ez daukate, gizarte bezala adin txikikoen kontsumoa onartuz. Hala ere, ez dugu ahaztu behar, supermerkatutan erosten duten adin

gabekoak badirela; baina gure kasuan, tabernetan egiten diren kontsumoak ere hor daude, nahiz eta legeak debekatu. Gizarteak errazten du adin txikikoen kontsumoa, egin beharreko zerbait dela iruditzen zaigulako, «denerako baitago adina, eta orain egiten ez badu noiz egingo du?». Gainera, neska eta mutilak egiten dituzten kontsumoek zerbait antzekoak dituzte; generoa ez da babes faktorea.

Tabakoa, berriz, nerabeen %31k probatu du; eta asko dira egunero erretzen dutenak: 15 urtekoetan %10ak, eta 16 urtekoetan %15ak.

Tabakoarekin berdin gertatzen da. Badirudi datu hauek azaltzean, orduan arduratzen garela daukagun errealitateaz, baina egoera nahiko antzekoa da azken urteetan; gainera, datuek beheranzko bidea hartu dute. Tabakoaren kontsumoaren ondorioak, denok ezagutzen ditugu: biriketako gaitzat, eztarrikoak... Baina adin txikikoen kontsumoaren ondorioak bortitzagoak dira adinez nagusikoenak baino, adin txikikoak egiten ari diren gorputzak direlako. Bulnerabilitate haundiagoa daukate, ondorioetan pentsatzeko gaitasun gutxiago, kontrol gaitasun gutxiago... Zaurgarriagoak dira.



AGIPADeko prebentzio teknikaria da Lukene Lizaso.

Eta kannabisari buruz, zer?

Tabakoaz eta alkoholaz jardun dugu, eta ez dugu ahaztu behar, kannabisa dela droga ilegaleen artean kontsumituen eta arrisku pertzepzio bajeen arteko duena. Eta zenbat eta arrisku pertzepzio bajeagoa, kontsumoak areagotu ohi dira. Oso onartuta daukagun substantzia bat da, eta nerabeek hori badaiteke, antzeman eta ikusi egiten dutelako. Hori horrela, helduok ere garen heinean, guri begira daude, guk egiten dugunaz ikasten. Batzuetan bestekoak dio 14,41 urterekin hasten direla kannabisa kontsumitzen. Egia da gehiago probatu eta ez duela berriz ere kontsumitzen; %3,3a da egunerokoan kontsumitzen hasten dena.

Gero eta gazteago kontsumitzen hasten direla iruditzen zaigu, baina datuek ez diote hori, adina ere atzeratzen dijoala baizik. Adin tartean azken urteetan mantendu egin dira, 13 eta 15 urte bitartean hasten dira probatzen eta kontsumitzen, nerabezeroan, kuriositatearekin eta heldu izan nahi horrekin.

Zer egin daiteke?

Helduak eredu gara, eta hori garbi eduki behar dugu. Gizarte bezala, gure aisialdi ereduak jarraitzen dute. Ikastetxeetan lanaketak egiten dira, kalean eta loketan ere bai, eta udaletxea ere inplikaturik dago. Eskuhartze komunitario bat izan behar dugu, denok ildo berean jarraitu, eta indar berezia egin hezkuntzan; baina ez ikastetxeetan, etxetan erakusten dugun horretan baizik, heziketako partaide diren agente guztiak inplikatu. Etxean gaiaz hitz egin, eta gai tabu izateari uzten dionean, lasaiago hitz egingo digute seme-alabek, dituzten galderak lasai eginez. Mito pila bat dituen gaia da, eta mitoak arriskutsu izan daitezke, normalean bakoitzak nahi duenari edota interesatzen zaion teoriari heltzen baitio, eta hori bilakatzen du bere egia.

Heziketan dago gakoa, eta horren ardura denona da: familia, ikastetxe, aisialdi talde, begirale, entrenatzaile... Haietako edonor izan daiteke prebentzio agente, eta eredu izateak izugarriko garrantzia dauka.

taldearen aurrean norbait izateak indar handia du, esaterako, alkoholarekin esperientziak, edo lehen zigarroak eta porroak probatzerakoan bezala. Gutxienez, besteen modura aritzea eskatzen du talde-dinamikak; eta besteen gainetik apustuen errege azaltzearen sedukzioa ere tentagarria da askotan.

12 urtekoen kasuan, seguruenik mugikor bidez burutuko ziren gehienak. Adin-txikikoen debekua dela eta, ustezko kontrola eta segurtasun mugak jartzen direnaren itxura egiten dute web orrialdi askok; baina baldintzak erraz saihesten dira. Sare bidezko erosketak arruntek, gako eta muga gehiago jartzen dituzte, apustuak egiteko baino.

Sexuaren arabera aldea dago: neskek apustu gutxiago egiten dute. Zergatik da hori?

Alde batetik, apustuak eta ausazko joko gehienak kirolarekin lotuta egoteak, mutilenganako

joera nabarmentzen du. Hala ere, normalean neskek interes gutxiago azaltzen dute jolas hauekiko. Egia da kirola ere feminizatzen ari dela, zorionez, baina ludopatiaren elikagaia ez da kirol-praktika bera, esparru profesionalean mugitzen den fenomeno baizik. Diru asko irabazten duten kirolari horiekin identifikatzeko ametsa sustatu nahiko balitz bezala.

Kirol apustuak dira ohikoena. Normalizatuta daude? Zer egin daiteke horren aurrean?

Taldeka dirua elkartu eta apustu txikiak eginaz irabazi errazak eskuratzearen fantasia elkarren artean elikatzen da. Zenbaitetan gurasoek horren kezka adierazitakoan, guztiek jokatzeko dutela argudiatzen da, hain zuzen zirrarako denborapasa modura ikusten dutelako. Izan ere, nork ez du dirua behar? Erraza da adin horretan,

sarean harrapatuta gelditzea. Hausnartzeko eta bulkadari eusteko aukera galtzen da zurrunbiloan sartzen direnean. Apustu eta joko ezberdinen programak, kalean dauden lokalak... norbere buruaren kontrola galtzeko prestatuta daude; erabakiak pentsatu ordez, bulkadarekin bat egiteko. Horregatik, arazoaren sentsibilizazioa beharrezkoa da. Nerabeek euren burua kontrolatzeko zailtasunak dituzten arren, euren artean elkarri gogorarazteko ahalegina sustatu behar da. Honekin batera, funtsezkoa da etxean, gurasoen aldetik, diruaren erabileraren nolabaiteko jarraipena egotea.

18 urtetik aurrera joko erregularran murgiltzen diren askok, etxe giroko kontrol edo babes eza aitortzen dute; nolabait, familia-harremana, edo lagunarte osasuntsu baten giroaren faltan, barne hutsunea, diru-erraza lortu eta makina



Jokalari Anonimoak elkartean psikologoa da Karmele Gurrutxaga.

gainditzearen zirrarekin ordezkatzeko da.

Zenbat eta bizi-ohitura orekatuagoak, ikasketa, aisialdi espazio baikorrak, kirola edo bestelako jarduerak egituratuak, identitatea finkatzeko balia-

garriak dira; eta ihes egiteko, edo barne-hutsunea betetzeko beharra ez da hainbestekoa. Izan ere, eragileak ugariak izan badaitezke, oro har mendekotasun oro nahigabetik ihes egiteko estrategia da.

Letra zopa

Sukaldatzeko tresnak

S	D	U	M	Z	R	A	Q	S	I	B	H	B	Z	C
L	A	B	A	N	A	F	G	A	R	I	N	P	B	V
G	S	V	C	B	B	J	U	R	A	T	L	B	S	R
Z	Y	I	J	N	X	E	D	D	B	R	T	I	B	M
I	A	X	E	J	Z	M	C	E	I	O	V	R	U	L
G	R	R	R	M	A	E	V	X	A	Z	E	R	R	B
B	X	A	T	M	P	K	Z	K	G	E	X	I	R	H
L	A	F	Z	A	E	T	H	A	A	R	L	N	U	G
Y	R	V	T	G	G	K	O	J	I	A	A	G	N	D
B	I	D	I	Q	A	I	C	X	L	M	P	A	T	P
F	E	U	W	L	E	I	N	A	U	I	I	I	Z	C
M	K	S	G	R	G	U	L	A	A	K	K	L	A	A
G	O	I	L	A	R	A	W	U	C	A	O	U	L	E
B	I	T	S	I	D	E	R	A	A	P	A	A	I	A
I	E	P	E	R	A	U	Z	G	A	I	L	U	A	C

BIRINGAILUA, BITSIDERA, ERAUZGAILUA, IRABIAGAILUA, LABANA, SARDEKKA, BITROZERAMIKA, BURRUNTZAILA, GOILARA, IRAZGAILUA, LAPIKOA, ZARTAGINA

Bertsoa


Oinak: denbora, gustora, kanpora, gogora.

Osatu bertsoa eta bidali bideoa whatsappez 688 660 714 zenbakira

Sudokua

	4		3					5
			7					4 3
		1	4		6			9
								1
1		2						
7	3			1	8			9
		3	2	5				
	9				4			2
				7				4

Labirintoa



IRAGARKI MERKEAK

ONDDI AKADEMIAn streaming bidezko klaseak eskaintzen ditugu DBH eta Batxilergoan. **Info gehiago: 688719571 edo onddiakademia@gmail.com**
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura, ...
Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)



EGURALDIA GAUR Eguraldi ederra, udaberriko giroa. Eguzkiak hego haizearen laguntzarekin, lainoguneak xurgatu eta giroa epelduko du. **Min.6° / Max.22°**

BIHAR Ildo beretik, baina laino gehiago agertuko dira. Temperaturak aurreko eguneko balioetan mantenduko dira eta hego haizea nahiko zakar ibiliko da. **Min.13° / Max.21°**


(euskalmet)

TELEFONO ZENBAKIAK

TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreo Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

FARMAZIAK

Egunez: **Odriozola** Idiazabal, 18 (Urdieta) **943 334014** **Gauetz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**
Goizueta: Nagusia 64 948 514353



Erlauntza

Zenbat erle ikusten dituzu?

Horrez gain, bila itzazu elementu hauek:

luma bat

jostorraz bat

botoi bat

bi eltxo

bi beldar

ehunzango bat



Itzala

Zein da bi lore maitemindu hauen itzal zuzena?



EGILEA: Garbine Ubeda (Aurrerri)
TOKIKOMeko beste hedabideekin elkarlanean argitaratutako atala.

SOLUZIOAK: Sartu www.plazanbazan.eus
web atarian eta denoira-pasa hauen soluzioekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.

Ogak irakurtzeko aplikazio batekin irakurri





Irango lehenengo mailan, Foolhad Khuzestan taldean da atezainen entrenatzaile, Asier Rey Santín hernaniarra.

«Beldur pixka bat ematen dit Iranera bueltak; kasu asko daude han, eta hegazkinak beteta doaz»

Atezainen entrenatzailea da Asier Rey Santín hernaniarra, Foolhad Khuzestan taldean, Iranen. Hernanin izan da egun hauetan, baina hara bueltatu behar du. Koronabirusaren hedapenak eta hango osasungintzak kezkatzen dute.

HERNANI FUTBOLA

Atezainen entrenatzaile izateko ilusioari segika, Iranerako bidea hartu zuen Asier Rey Santín hernaniarrak, aurreko udaran. Ahvaz hiriko Foolhad Khuzestan taldean ari da, Irango lehenengo mailan; eta esperientzia «oso polita» ari zen izaten, Koronabirusak agerraldia egin duen arte. Azkeneko asteotan Hernanin izan da, ligan etenaldia egin dutelako, urte berri pertsiarra ospatzeko. Koronabirusak jarri du dena kolokan, baita ligan etenaldia luzatu ere, baina bueltatu beharra dauka hernaniarrak, entrenamenduekin jarraitzeko. Buelatuko bidaia «odisea bat» izango dela dio, eta kutsatzeko beldur da, han kasu asko daudelako, eta jendeak hegazkina egunerokoan hartzen duelako.

Zer moduz egun hauetan Hernanin?

Ondo. Familiarekin egoteko aprobetxatu ditut egun hauek. Pena ezin etxetik ateratzea, baina gurasoekin eta amonarekin egon naiz etxean, eta beraiekin denbora pasatzeko aprobetxatu dut behintzat. Astebeterako etorri nintzen berez, baina egoera honetan, pixka bat luzatu da azkenean. Orain dela bi aste iritsi nintzen, eta Iranen behar nuen joan den igandetik. Atzeratu egin da, oraingoz beste astebeite, baina bueltatu egin behar ko dut. Zain nago taldeak esan arte, entrenamenduen hasiera ere atzeratu egin dutelako, gauzak ez daudelako ondo han.

Baina Koronabirusagatik baino, ligan geldialdia aurreikusita zegoelako etorri

zara, ezta?

Hori da. Nouruz deitzen dutena edo urte berri pertsiarra ospatzen da egun hauetan, eta ligan geldialdia zegoenez, astebete neukan etortzeko eta familiarekin egoteko. Egoera honetan, dena aldatu da, baina bueltatu beharra daukagu derrigor. Odisea txiki bat izango da hori. Hegazkin gutxi daude, eta asko hartu behar dituzu hara iristeko, makina bat eskala eginez. Beldur pixka bat ematen du... European, beharbada, ez dira oso beteta egongo hegazkinak; baina Iranen, distantziak hain haundiak direnez, jendeak egunerokoan hartzen du hegazkina, eta topera beteta joaten dira.

Eta egun hauetan ere normaltasunez dabil jendea?

Ni etorri nintzenez, jendea kalean zebilen. Bazeuden batzuk, bere kabuz, etxean gelditzen zirenak, baina ez dago araututa. Eta jende asko dabil kalean. Etxera dirua eraman beharra daukate, eta han, kalean egiten da bizitza, kalean saltzen dira produktuak... Konfinamendurik

ez dago. Gomendatu dute etxean geratzea, baina ez derrigor.

Koronabirus kasu asko daude Iranen?

Bai. Ez dakit zifra zehatza, baina uste dut estaltzen ari direla, pixka bat. Ez dute esan nahi zenbat diren benetan, baina inguruko bitartez, badakigu asko direla.

Kutsatzeko beldur zara?

Bai, han ospitaleak eta osasungintza oso ezberdinak direlako,

hemengoan aldean. Guk, klube-ko kontratuarekin, mediku aseguru daukagu, baina hobe da han ez harrapatzea gaixotasuna. Edozein kasutan, gure lanaren parte da, eta horretara joan behar ko dugu. Alde ona da, hiririk aparte gaudela, eta etxeak, zelaia... dauzkala klubak. Ordu erdira dago Ahvaz hiria.

Hiri jendetsua da?

Miloi bat biztanle inguru izango ditu. Baina gutxi joaten gara bertara. Deskonektatzeko, kanpoan afaltzeko, erosketak egiteko...

Eta klimaren aldetik, alde haundia dago?

Bai, bero haundia egiten du han, 40-50 gradutan ere egoten gara. Une honetan ez, 20-25 gradutan gaude, eta hori da urteko garai hotzena. Baina hemendik hilabete batera sekulako beroa egingo du, eta etxean geratu beharra dago.

Urtebete exkax daramakizu Iranen.

Udaran iritsi nintzen, Eibarko nesken taldean bi urtez egon

«Konfinamendurik ez dago Iranen, eta jende asko dabil kalean. Etxera dirua eraman beharra daukate, eta kalean saltzen dira produktuak han. Gomendatu dute etxean geratzea, baina ez derrigor»

«Oso esperientzia polita ari da izaten. Beste kultura bat da, oso ezberdina, bai jendearen aldetik, eta baita futbolari dagokionez ere»

ondoren, oso gustora. Lagun batek, Josu Sesmak, deitu zidan proposatzeko hara joatea. Aste-bete pasa nuen pentsatzen, horrelako toki batera joateak beti sortzen dizkizulako zalantzak. Beti dauzkagu buruan gerra eta horrelakoak, baina behin etorrira, konturatzen zara hirian bizimodua arrunta dela. Bai konturatzen zarela, batzuk oso aberatsak direla, eta aldi berean pobrezia dagoela. Baina arazorik ez dut izan, eta kaleak seguruak dira. Sesmak bi urte zeramatzkien, eta kontatu zidan nola zen dena. Beraz, onartzea erabaki nuen.

Zer moduzkoa ari da izaten esperientzia?

Oso esperientzia polita. Beste kultura bat da, oso ezberdina, bai jendearen aldetik, eta baita futbolari dagokionez ere. Eta klubean ere primeran, instalazio politikak dira, haundiak. Denetik izan dut, onetik eta txarretik, baina aberasgarria izan da.

Eibarren bezala, beste talde askotan aritu zara hemen.

Eibarren aurreneko esperientzia nuen nesken talde batean, eta sekulakoa izan zen, oso polita. Familia giroa dago klubean. Aurretik, Gujuelon egon nintzen, Salamancan, Bigarren B Mailan, beste bi urtez. Eta lehenago, hemengo taldeetan: Antiguoko, Ostadar, Ekintza, Kostkas, Vasconia... Pixkanaka, esperientzia pilatzen urtero, hori baita garrantzitsuena.

Nolatan atezainen entrenatzaile?

Txikitatik izan naiz atezain. Eta 16 urterekin, entrenatzaile bezala ere hasi nintzen, eta ikusi nuen gabeziak zeudela atezainen arloan, entrenamenduetan. Esaten zitzaizkidan beraien berotzeko eta gero taldearekin bat egiteko, eta horrelakoak. Pixkanaka, atezain bezala, oso atezainen entrenatzaile onak izan nituen; tartean, Luis Llopis, Artea... Eta beraien ikusita, konturatu nintzen beharrezkoak ziren atezainen entrenatzaileak. Beraz, horretarako ikasten hasi nintzen, tituluak atera nituen, urtero gauza berriak ikasten. Esperientzia guztietatik ere,



Asier Rey, entrenamendu batean, Foolhad Khuzestan taldeko atezainetako bati baloia jaurtitzen.

ikasi egiten duzu, etengabeko prozesua da. Formakuntza oso garrantzitsua da, gero hori guztia zure atezainei erakusteko.

Bidea ez zen erraza izango...

Ez da erraza izan, ez. Galiziara joatea erabaki nuen, esku hutsik. Talde batean entrenatzaile bezala hasi nintzen, eta gero atezainen ardura hartu nuen. Hurrengo urtean, berriz, koordinatzaile bezala aritu nintzen, atezainekin, bi taldetan. Eta handik, Gujuelora deitu ninduten. Eta bidea egiten hasi nintzen. Txinako akademia batean

«Luis Llopis oso erreferentzia ona da niretzat. Txikia nintzenetik ezagutzen dugu elkar, askotan hitz egiten dut berarekin; eta nik bide hau hasi nuenetik, beti egon da niri laguntzeko prest»

aritzea ere eskaini zidaten, baina azkeneko astean okertu zen dena. Eibarren beka jaso nuen orduan. Bi urte oso polit izan dira han. Eta horrela iritsi naiz Irango lehenengo mailara, esperientzia bizitzeko gogoz. Gustatuko litzaidake etxera bueltatea eta bertan izatea aukera, atezain entrenatzaile izaten jarraitzeko. Baina badakigu nola

dauden gauzak, eta ez da erraza. Urtez urte, han edo hemen, jarraitu nahi dut honetan, etxean edo etxetik kanpo. Hau da nire pasioa.

Baloratuta daude atezainen entrenatzaileak?

Pixkanaka, gero eta gehiago baloratzen dira. Beharbada, Bigarren B Mailatik behera, ez zaie hainbesteko garrantzia ematen. Azken batean, aurrekontu bat daukate, entrenatzailea dago, prestatzaile fisikoa... Eta beste plano batean geratzen dira atezainen entrenatzaileak. Baina maila profesionalean, oso ondo ikusita daude. Entrenatzaileek, beraien konfiantzazko atezainen entrenatzaileak eramaten dituzte taldeetara.

Luis Llopis, Jose Manuel Otxotorena... eta orain zu. Bitxia da, Hernani bezalako herri batean, profesionalean hainbeste atezainen entrenatzaile izatea, ezta?

Beraien ibilbidea ikusita, nik nire bidaia hasi ere ez dut egin oraindik! Luis oso erreferentzia polita da niretzat. Txikia nintzenetik ezagutzen dugu elkar, askotan hitz egiten dut berarekin, eta nik bide hau hasi nuenetik, beti egon da prest niri laguntzeko. Edozein zalantza daukadanean, beregana jotzen dut. Beraz, nire erreferentzia da Luis, are gehiago hernaniarra izanda.

Atezain bezala, Hernanin ere aritutakoa zara, ezta?

Bai, hiru etapa egin nituen bertan. Infantiletan egon nintzen aurrena, eta ondoren jubenile-

tan. Eta tartean, Antiguokon, Lengokoaken, Ostadarren... Eta ondoren, belaunean ebakuntza egin beha izan zidaten, 20-21 urterekin. Hernanira bueltatu nintzen, baina ez nuen askorik jokatu, ebakuntzaren ondoren ez nengoelako ondo. Hori izan zen nire hirugarren etapa Hernanin, erregional preferenteen taldean.

Lesioa izan aurretik, maila oneko atezaina izan zinen.

Bueno, maila normalekoa. Ez nintzen sekulako atezaina izan. Egia da Antiguokon aritzeko, eta Lengokoaken Liga Nazionalean, behar dela maila pixka bat. Baina gero, nire mailak okerrera egin zuenean, eta aldi berean entrenatzaile bezala ari nintzenez, erabaki behar nuen jokatu edo entrenatu; eta bigarrena aukeratu nuen. Ordu asko kentzen dizkizu entrenatzaile lanak. Eta horretan ari naiz, nire bidea egiten.

Eta bide horretan, zein da hurrengo geltokia?

Ba ez dakit. Oraingoz, hemengo denboraldia bukatuko dugu hemen. Baina futboleko, ezin da jakin. Egun batean talde batean zaude, eta hurrengoan etxean lanik gabe. Etxera bueltatzea gustatuko litzaidake, baina aukera sortu behar da horretarako.

Badakazu metarik?

Nire taldea, txikitatik, Reala izan da. Meta bezala hori ikusi daiteke. Baina lan honetan, ez dakigu non egongo garen, hurrengo denboraldian. Aka-

so Hernanin, edo auskalo non. Balio duena da egotea. Nire ilusioa da, atezainen entrenatzaile bezala jarraitzea. Oso zaila da,

«Txikitatik izan naiz atezain. Eta 16 urterekin, entrenatzaile bezala hasi nintzenetik, konturatu nintzen gabeziak zeudela atezainen arloan, entrenamenduetan»

baina horretarako, egunero lanean jarraitu besterik ez dago. Ikasi, kurtsoak egin, eta pausoak emanez joan.

Zer esan dizu familiak, orain hara bueltatzeari buruz?

Beraien ere badute beldur pixka bat. Baina esan diet, nire lana dela, eta hara joan beste aukerarik ez dudala izango. Gutxi geratzen zait, maiatzean bukatzen baitzait kontratua. Eta datorren denboraldira begira, ikusiko dugu.

Han jarraitzeko asmorik ez daukazu?

Ez ditut atek itxiko. Baina aukera berriak suertatuz gero, baloratuko ditugu eta ikusi zer den onena. Momentuz, Iranen talde polita daukagu, eta gustora nago. Ikusiko dugu non gauden, datorren denboraldian. **K**



Erramu Igandearekin emango zaie hasiera bihar Aste Santuko mezei, baina internet bidez

'Urumea Harana Pastoral Barrutia' Youtuben edo Googlen idatzita, meza bakoitzaren bideoa ikusi ahal izango da. Ordutegia zehaztu da meza bakoitzerako, ordu horretan jarriko direlako bideoak ikusgai, baina gero ere ikusiko dira.

URUMEA ELIZA

Aste Santuko elizkizunei emango zaie hasiera bihar, Erramu Igandearekin. Koronabirusaren pandemiak eraginda, ordea, konfinamendu egoeran daude herritarrak, eta Urumea Harana Pastoral Barrutiak meza guztiak internet bidez jarraitzeko aukera emango die Hernani, Astigarraga eta Urnieta-ko parrokiak sinesdunei.

Elizkizun bakoitzaren bideoak interneten topatu ahal izango dira, Googlen edo Youtuben 'Urumea Harana Pastoral Barrutia' ida-

tzita. Bideo bakoitza egun eta ordu jakin batean jarriko da ikusgai interneten, eta horregatik, ordutegi bat zehaztu dela azaldu du Jose Luis Aperribai apaizak. Dena den, bideoak hor geratuko dira, beranduago ere ikusi ahal izateko.

Bihar, aurreneko mezak

Erramu Igandearekin, bihar hasiko dira Aste Santuko elizkizunak, Sarrera mezarekin, 11:00etan.

Hurrengo hitzordua Ostegun Santukoa izango da; Jaunaren afaria arratsaldeko 18:00etan ospatuko da.

Ostiral Santuan, berriz, Gurutzbidea izango da 11:00etan, eta Pasio ospakizuna 18:00etan.

Larunbat Santuan Pazko Gaubelia laburra egingo da 20:30etan.

Azken ospakizuna Pazko Igandekoa, apirilaren 12koa izango da: Pazko Jaia egingo da 11:00etan. **K**

ASTE SANTUKO MEZAK

Bihar, Erramu Igandea
11:00 Aste Santuko Sarrera meza

Ostegun Santua
18:00 Jaunaren afaria

Ostiral Santua
11:00 Gurutzbidea
18:00 Pasio ospakizunua

Larunbat Santua
20:30 Pazko Gaubelia laburra

Pazko Igandea
11:00 Pazko Jaia



Jose Luis Aperribai apaizak internet bidez emango ditu Aste Santuko mezak.

Covid-19 Osasun Larrialdia

Euskadiko tokiko saltokiak, funtsezko jarduerak irekita jarraitzen dute.

Mila esker!

Guztiei egunero pertsiana igotzeagatik.

Mila esker!

Hurbiltasunez eta profesionaltasunez arreta emateagatik.

Mila esker!

Zuen lana ezinbestekoa da.

Mila esker!

Euskadiko tokiko saltokietako pertsonei.

Mila esker!

Bertan egoteagatik zuen beharra daukagunean.

Tokiko erosketak, egin kontsumo arduratsua, zero xahutze.

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

#EuskadikoSaltokiak

#etxetikurbil

